

ASTEARTEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2023ko URTARRILAREN 17a. 08:30.

ASTEARTEA (2023/01/17)

Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du eta ugaria izango da, bereziki Kantauri isurialdean, non zenbait lekutan oso ugaria eta iraunkorra izan den. Baliteke trumoi-ekaitzak jo eta txingorra botatzea, bereziki Kantauri isurialdean. Elur-kota 1000 m-tik jaisten joango da, arratsaldean 500-700 m inguruan kokatuz eta baliteke gauean 400 m jaitea, noizbehinka beherago kokatuz. Mendebal-osagaiko haize bizia ibiliko da tarte gogorrekin, eta bolada oso gogorrekin, bereziki kostaldean. Temperatura maximoetan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira. Barnealdean izotz txikia egingo du.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	10
Bilbao	10
Gasteiz	8
Arrasate	9

ASTEAZKENA (2023/01/18)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Zaparrada ertainak botako ditu, iraunkorrak eta ugariak izango dira, bereziki Kantauri isurialdean, eta bertan prezipitazioa oso ugaria izan daiteke. Baliteke trumoi-ekaitzak jo eta txingorra botatzea, bereziki Kantauri isurialdean. Elur-kota 400-500 m inguruan kokatuko da, eta baliteke noizbehinka 200-300 m-ra jaitea. Ipar-mendebaldeko haize bizia ibiliko da bolada gogorrekin, eta oso gogor batzuekin, bereziki arratsaldean, kostaldean eta ekaitz guneeetan. Temperatura jaitsi egingo da: minimoak gutxi eta nahikoa maximoak. Barnealdean izotz txikia egingo du, mendi inguruetakoz zenbait lekutan handia.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	3	7
Bilbao	4	7
Gasteiz	-1	4
Arrasate	1	6

OSTEGUNA (2023/01/19)

Zerua estalita egongo da. Zaparrada ertainak botako ditu, ugariak eta iraunkorrak izango dira Kantauri isurialdean; gainerako lekuetan txiki-ertainak izango dira. Egunaren lehenengo partean baliteke trumoi-ekaitzak jo eta txingorra botatzea, bereziki goizaldean eta Kantauri isurialdean. Elur-kota 400-500 m inguruan koka liteke eta goizaldean noizbehinka beherago egon liteke; eguerdi partean 600-700 m-ren bueltan koka daiteke, gauean 1300-1500 m ingurura igoz. Mendebal-osagaiko haizea bizi ibiliko da, bolada gogorrekin; goizaldean eta goizean goiz ipar-mendebaldekoa nagusituko da eta hego-mendebaldekoa arratsaldean eta orduan indartu egingo da bolada oso gogorrekin ibiliko da kostaldean eta ekaitz-guneetan. Temperaturan minimoetan aldaketarik ez. Temperatura maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira. Barnealdeko zenbait lekutan izotz txikia egingo du, mendi inguruetakoz zenbait lekutan handia.

OSTIRALA (2023/01/20)

Zerua estalita egongo da. Prezipitazio txikia egingo du, Kantauri isurialdean noizbehinka ertaina egin dezake. Elur-kota 1200-1400 m inguruan kokatu da, arratsaldean igo eta 1500 m-tik gora koka daiteke. Ipar-mendebaldeko haizea bizi ibiliko da bolada gogorrekin eta arratsaldean indarra galduko du, norabide aldakorrekoa gelditu arte. Temperatura minimoak gutxi igoko dira eta maximoetan aldaketarik ez.